

Aitonaren ipuitxoak

Euzko Gaztedi, 11. zk., 1949-04: 11-12.

BELKOAIN mendiko babes eder batean, baserritxo txuri ta alai bat ba'zan garai artan. "MENDILUZE" izeneko basetxe aberatz eta ederra. An bizi ziran pake-pakean Joxe ta Iñaxi beren lau seme-alaba euskotar da euskaldun egin da aitona-amonak gogo onez onetziatz.

Semeetan zarrena, Jon, amaika urte izatera eldu zan ia ta oso idazti laguna zetorren.

– Gure seme onek –zion sarritan Joxe zintzo arek bere emazteari– lurra lantzeko baño idazti tartean egoteko gogo ohea duala uzte det.

– Ta ala ba'litz ez litzeke kaltegarri izango, Joxe; besteak ere gora dijoazte ta zuri laguntzeko lain izango dira.

Jon oso bizkor da argia zalarik, laizter erritxo artako apaizak zekizkian gauz geienak ikasi zituan da norabait kanpora bialdu bearke zutela, bere gurasoak baño zerbaitxo bat beiago ikasi zezan, esatera etorri zan Iñaki, apaiz jauna, arratzalde batean MENDILUZE'ra.

– Gure semeak orrenbeste bai al'daki ba, Iñaki jauna? –zion, arritu ta pozturik, etxe-nagusiak.

– Bai, bai; mutil askarra ta langilea dezute Jon. DONOSTI'ra joango ba'litz...

Eta DONOSTI polit eta ederrera bialdu zuten Jon, gaur edo biar idazkari edo alkate, gutxienez, izango zala ta...

Urteak erreze igarotzen dira ausoan eta ara emen gure Jon ia gizan bat egin da berriz MENDILUZE'n.

– Arranoa! –zion aitak semeari– gure lurrak zenbat gari ta arto emango duten aurretik jakin al'badek, ez aiz motela!!...

– Gutxigora-bera, aita; arriak botatzen ez ba'ditu ta euri eskasirik ez ba'da...

– Bai, bai; bañan ... arrano pola... Eta gaur edo biar maixu izatra elduko aiz, beraz?

– Ni sendagile izatera eldu nai nuke, aita.

– Ondo zio, ondo zio! Jaungoikoak ez dezala nai, bañan gure artean gaitzeren bat eokitzen ba'zaigu ere sendiko norbait sendatzeko etxean izatea ez dek gutxi... Apaiz jaunarekin itzegingo diat.

– Nora esan du beorrek, Iñaki jauna?...

– VALLADOLID... España'ko uri aundi bat; ara joan bearke du Jon'ek sendagile egin nai ba'du.

– Eta ezin allezake bear duana DONOSTIA'n ikasi?

– Ez, ez... zoritxarrez, ez!

– Orduan Balado..., orkoak; bizkorragoak dira nonbait?

– Bai zera, ez da ori!; bañan emen ez dute Jon'ek bear duana erakusten.

– Ez det ondo ulertzen..., bañan, tia!, ara joan bear duala beorrek esaten ba'du...

... Ta joan zan Jon atzerrira. Urtea joan da urtea etorri, udarero ilabete bat igaro ta sos asko eramatera etortzen zan Jon MENDILUZE'ra.

– Alajaña, gure seme orri euskera astuko ote zaio? Erdera besterik ez du egiten –zion Joxe'k bere emazteari.

– Olako jakinduriko jendeak ala izan bearko dute ta...

– Bai zera! Gure sendagilea, Kalixto jauna, euskeldun garbia da ba!

– Bai, bañan, ... gurea, bear ba'da, bizkorragoa izango da!...

Urteak aurrera ta mutilak aurrerapanik ez nonbait. Au zan beintzat apaiz jaunaren iritxia. Etzion MENDILUZE'ko nagusiari ezer esan, bañan kesketan zegoan da VALLADOLID'en zeukan bere adizkide bateri idatzi zion, ixilpean.

Etzan atzerritik berri onik etorri. Iñaki jauna itun zebilen erantzuna artu zuan eskero. Kesketan zegoan apaiz gizarajoa; beraen errua ote zan ba, mutil ura atzerrira bialtzea!!...

Arratzalde batean igo zan MENDILUZE'ra.

– Ara –ekin zion, nola asi etzekiela ainbeste gauz erabili ondoren– berri txarrak ere izaten ditut nik noizean bein da... bat badakarkizutet baur...

– Zer gertatzen ba da, Iñaki jauna, ikaratzen zazu... ez dezala beintzat orain nere emazteak entzun, gaixorik dabil da...! Gure Jon!...

– Bai, bañan ez zuk uzte dezuna... Etzaitezela estutu; zuen seme ori pixken bat alprojatzen asi ote dan ba...

– Esaten nion nik bere emazteari! Atzerrian bakarrik dabilen semeak okertzeko era asko!... Bañan etzuan ba gaiztakeri aundiren bat egingo!

– Ez da orrenbesterañokoa oraindik, bañan bear izan dituan baño bi urte geiago galdu ditu ta...

– Ta sos asko kendu dizkit bitarte ortan! Egia esateko!...

– Banekian eta ara nere keska. Zuk al'dezun baño diru geiago bear duala jakin nuan; besteren bateri zerbait eskatzera joan zerala esan didate.

– Ala da. Gure mutil ori zerbait izan dedin edozer gauz egingo nuan da!...

– Bañan bide ori artu ba'du, ohea da etxera ekartzea. Dakianarekin emen zerbait egin lezake ta gizon izaten berriz erakutziko diozute beintzat. Sendagile izateak ainbat garrantzi ba'du gizatazunak.

Bañan ezuten Jon etxera ekartzerik izan. Neska españar btekin eskondu zala edo ez, etzuten MENDILUZE'n bere berririk izan luzaroan da bitarte orretan aitona-amonak eta Iñixi zintzoa il ziran.

Arrezkero etzuan Joxe gizarajoak onik izan da baserria zaldu bear izan zuan, zorperatu zan da.

Ez da asko MENDILUZE baserria erre zala. Joxe bere iru semeekin AROTZ izena duan baserri batean bizi da, ta MENDILUZE bere semeak erre zuala esaten du beti.

Erritar [Martin Ugalde]